

7. BEZEROEKIKO HARREMANAK



Gure bezeroekiko harremana bi iturrien bitartekoa izango da. Alde batetik, denda fisikoa izango dugu, non gure produktua salduko dugun eta gure bezeroei dudak eta galderak erantzuteko prest egongo garen. Beste alde batetik, webgune bat sortu dugu,

non interneten bitartez gure produktuak salduko ditugu eta 24 orduz gure bezeroen galderak erantzungo ditugu posta elektronikoaren bidez.

Gure bezeroen iritzia garrantzitsua da guretzat, etekinekin konparatuz, ea ondo hedatzen ari garen jakingo baitugu. Horretarako, bai denda fisikoan bai webgunean aukerako inkestak egingo ditugu.

Azkenik, gure bezeroek webgunean harpidetza egiteko aukera izango dute. Horrela, gure jaurtiketa berrien eta promozioen berri eskusiboak izango dituzte. Bezeroek ere haien burutapenak, aburuak edo aholkuak partekatu ahalko dituzte gurekin.

